

Kontakizuna poesian. Oroimena gurean

JON KORTAZAR



Hilabeteak daramazkit Sholeh Wolpé (Teheran, 1962) poeta iraniarraren lana goraitzen eta adiskideak aspertzen «irakurri behar duzu» eta «irakurri behar duzu» aholkatzen diedalarik, aholkua eta asperdura neurri berean erabiliz eta haiek nekatuz. Visor etxeak argitaratu dion liburua ezagutu diot. Besterik ez dakit, baina nahikoa da poeta handi horren arnasa eta maisutasuna ezagutzeko.

Abadea eta abakoa

Madrileko Visor argitaletxeak eman du plazara ezagutzen duan bere liburu bakarra: 'Ábaco de la pérdida. Memoria en verso' // 'Galeraren abakoa. Oroimena bertsoetan'. Badirudi beste liburu bat ere baduela gaztelez, 'Cómo escribir una canción de amor' deiturikoa eta 2017an

argitaratua. Baina nik lehena besterik ez dut ezagutu eta horretan murgildu naiz, harriduraz eta pasioz, poema bakoitzean, bertso askotan ezustea hausnartuz.

Abakoa, denok dakigu, zenbakiak kontatzeko tresna dugu. Eta oso hurbil daude zenbakiak kontatzea eta istorioak eta kontakizunak kontatzea, eta horrela erakutsi zizun Ramon Saizarbitoria idazle maisuak eta nagusiak ere 'Ene Jesus!' nobela paregabea, non protagonistak ezin zuenean jada kontakizunak ahoz eta hitzez esan, zenbakiak kontatzen zituen.

'Abade' hitza ugari batu duen 'Orotariko euskal hiztegiari', aldiz, ez da 'abako' hitza ageri, edo ez dut ongi begiratu. Eta pena da, zeren esango nuke gure haurtzaroko lehen kontuak egiteko orduan asko-

tan erabili genuen tresna zela abakoa, eta hari era batez edo bestez esango genion izena euskaraz.

Autobiografia eta Memoria

Abakoen egituraren antzera moldatu du bere liburua Sholeh Wolpé. Lehen lerroan gai nagusi bat: 'Galeraren kolorea'. Eta ondoren perla, kasu honetan, sei perla. Gai bat, sei poema, abakoaren lehen lerroa. Bigarren lerroan gai bat, orain 'Hil kutxa', eta hamahiru perla.

Perla bat, poema bat. Eta dardara: «Denok ongi mintzatzeko/ dugun hizkuntza da galera / gure saihesten artean dabilen kexua, poza/ bihurtzen den zoritxarra». Eta horrela, erlaz perla, bere bizitzaren kontakizuna osatu arte.

Bere historia osatu du, bere autobiografia eta bere memoria. Iran atzean utzi zuen ga-



Sholeh Wolpé, emanaldi batean.

rairean historia, ilusioz eta ametsez beterik bizi zen gaztearen aitortpena, galeren bidea, berriro itzuliko ez den munduaren zama, iraganaren argia eta gaurkoaren mina. Umea bota ostean minez den adiskidearen kontakizuna senarra galtzeko zorian den

emakumearen gordina. Larrua kendua haragi biziz ageri den min sakona Sholeh Wolpé erakusten duena.

Kontakizuna

Poesia honen gakoak baina, kontakizunean datza. Abako lerro bakoitza eszena nagusi bat da, bere bizitzako atal nagusi baten itzala, zatiz zati osatzen den bizitza baten kontakizuna. Non baiten irakurri dut Miren Agur Meabek ere bere 'Amorante frantseza' lanean historia bat kontatu nahi izan duela poesiaren bidez. Sholeh Wolpé horixe egiten du, baina atal solteen bidez, irakurleari lotura hariak batzeko lana utziz.

Pantailak arakatzeko ikusi dut Sholeh Wolpé pare hartu zuela Bilbao Poesia jaialdian 2015eko urriaren 16an. Eta errezitaldi hartan izan zirela Yolanda Castaño, Miriam Reyes eta... Miren Agur Meabe.

Dena dela, ez da Sholeh Wolpéren asmoa bere bizitzaren kontua hasi eta buka sortzea, bere eginkizuna beste bat da: atalez atal, eta bakoitzari bere indarra emanez, irudi indartsuez, osotasuna sortzea eta irakurleari zuzen-zuzen ematea deserriaren mina, bizitzaren gazi-gaza.

Memoria ernalduz

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Hasier Larretxeak idatzi dituen poesia-lanak Nafarroako herri paisaietan ainguratu ohi ditu, muga-identitatea, memoria kolektibo eta indibiduala, komunitateko kide izatearen zentzua eta erresistentzia bezalako gaiak harilkatu bitartean.

Hiru atal bereiztu ditu iazko azaroan kaleratu zuen zazpigarren poema-liburuan. Lehenengoan ('Klorodun itzalak') haurtzaroko finkatzen du arretea. Oroitzapenak eskuratzen ditugun bakoitzean, aldatu egiten dira, egoera emozionalarekin koloreztatuak, iragana benetan izan zena baino leku hobe bihurtzeko joera baitago. Egileak, ostera, badu begirada zintzoa, anbivalentzia -edertasuna eta mina, askatasuna eta beldurra onartzen duena, bertso bakar batekin geratu gabe. Horixe da, hain zuzen, kloroaren eragiketa: ez zuritzea edertzearen, argiago ikustearren baizik.

GUZTIA URRUNTZEA DA
HASIER LARRETXE
Susa
88 or.
13,50 euro



Bigarrean ('Korapilatutako hariak') giza harremanen konplexutasuna iradokitzen da. Larretxeak batzen eta, aldi berean, estutzen duen oro islatzen du olerkietan, gizabanakoen erlazioak, istorioak ez baitira linealak. Alabaina, galera ez du doluaren tonua hartzen, ibili izanaren oihartzunak nonahi topatzen dituelarik.

Hirugarrenean ('Sua itzaltzen bada') galderak nagusi zaizkio. Baldintzapeko formulazio horretan gaurko garaiekin prekaritatea antzeman dezakegu. Euskal tradizioan suak familia eta leinuaren jarraipena sinbolizatzen zuen. Su hori itzaltzea, hortaz, ez litzateke soilik bizitzeko modu bat edo komunitate baten desagertzea. Herentzia kultural eta emozionala da, biziari nola gorputzari dagokiona, eguneroko keinuean txertatua.


Poemak, zenbaitetan, kontzeptutik irudirantz eraikitzen ditu Larretxeak, baina prozesurik eraginkorrena alderantzizkoa izaten da, zeren, horrela egiten duenean -traktorearen ildoak, ireki gabe gurutzatzen zen atea, solstizioa, zubi erromatarra- olerkiek benetako dentsitate emozionala lortzen baitute.

Lower East Side-ren historia bat

AIORA SAMPEDRO

Testu Zaharrak argitaletxeak urteko argitalpenen artean ekarri du 'Dirurik gabeko juduak'. Michael Gold estatubatuarren haurtzaroko dietarioa best seller bilakatu zen 30eko hamarkadan nazioartean. Euskaraz testu hau izateak kultura judutarraren inguruko ikuspegi polidrikoa osatzen lagunduko dio gure irakurleari. Izan ere, Michael Gold berez Itzok Isaac Granich idazle eta kazetari newyorktar judutarraren ezizena da. Idazle konprometitu, ezaguna izan zen joan den mende hasieran bere jardun politikoagatik. Komunista, mexikora erbesteratu behar izan zuen Macartismoan jazarria izan zelako. Konpromiso hori familiako ondorengoei ere helarazi omen zaie. Liburua euskaraz argitaratzeko zela jakitean, beren oniritzia eman omen zuten. Euskaldunak langile jende ondradutzat baitituzte Granichtarrek.

DIRURIK GABEKO JUDUAK
MICHAEL GOLD
Testu Zaharrak
303 or.
20 euro



Bere libururik ezagunena, 'Dirurik gabeko juduak', oso entzutetsua izan zen 30eko hamarkadan, batez ere European nazien propaganda anti-judutarra zailantzen jartzeko. Izan ere, testuak New Yorkeko judutar ghettoan bizi zen giroaren berri ematen du, beti ere, klase ikuspegi batetik. Kontakizuna dietario errealista batez dago osatua. Gold txikiak Lower East Side-n migrari europarrek

zuten eguneroko bizitza gogoratzen du anekdoten bidez, baina ez da tesi nobela bat, ez baitira ageri egilearen azalpen politikoak. Eguneroko lazarria gailentzen bada ere, Goldek ironia eta satira erabiltzen ditu gertakarien berri emateko: pertsonaia ia desitxuratuak ageri dira, bizitzaren eta heriotzaren arteko muga oso lauso da ia eguneroko gertakarietan eta bortizkeria, transbertsala kulturen, arrazen eta klaseen artean. Haur baten begirada inozenteak goxatu egiten du, hale-re.

SALDUENAK

FIKZIOA

- 1 Bakea, bakea** Xabier Montoia. Elkar.
- 2 Zaldi bat** Maddi Ane Txoperena Iribarren. Txalaparta.
- 3 Jai alai** Gaizka Arostegi. Elkar.
- 4 Dena zulo bera zen** Eider Rodríguez. Susa.

EZ FIKZIOA

- 1 Harrizko bihotza** Karmele Jaio. Elkar.
- 2 Esnatu ala hil** Iñaki Goikoetxea/Garikoitz Iurrebaso. Elkar.
- 3 Hamaika irakurtzeko jaiok** Batzuk. Udalbiltza.
- 4 Esne-berriketan** Uxue Alberdi. Elkar.